

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko abenduaren 21a, asteazkena.

2017ko urtarrilaren 25ean akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko. Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru. Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, Dolores Ruiz Zuazo (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, Diana Rubio Lafuente (PP) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion), bertaratu ezina arrazoitu du.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, aldez aurretik eta arauzko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko Aztergaien Zerrenda

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 21 - XII – 2016;

1. Onestea 2016ko azaroaren 9ko ohiko bilkurako akta.

2. Dekretuak eta alkatetza ebazpenak.

3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

3.1. Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko erakunde-adierazpena.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

5.1. Azaroaren 25eko erakunde-adierazpena: Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.

5.2. Gizarte Zerbitzuen Planari buruzko erabakia.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

6.1. Kreditu kontuaren kontratua, 2017 ekitaldia.

6.2. 2017ko laguntzen programan obrak sartzeko eskaera, obra txikiak exekutatzeko.

Azken puntua) Galderak eta eskaerak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2016ko azaroaren 9ko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

Onestea 2016ko azaroaren 9ko bilkurako akta.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Dekretuak eta alkatetza ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 216/16etik 235/16ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

5.1. Euskararen Nazioarteko Egunari buruzko erakunde-adierazpena.

Eslava Guillerna andreak Zer egin dezaket nik Euskararen alde? adierazpena irakurri du. 2016ko Euskararen nazioarteko eguna dela eta idatzikoa. Testua erantsi du euskaraz eta gaztelaniaz.

¿Qué puedo hacer yo por el euskera?

Día Internacional del Euskera, 2016

Declaración

El tres de diciembre es un día feliz para toda la ciudadanía vasca. Hemos llevado al euskera a un claro crecimiento, desde el declive social que venía conociendo hasta hace cuarenta años. De ser una lengua sobre todo de las generaciones mayores, ha pasado a ser una lengua intergeneracional y, especialmente, de la juventud. De verse constreñido a determinados ámbitos, a adquirir carta de naturaleza en ámbitos sociales en los que nunca había estado presente. De ser la lengua más antigua de Europa, a ser una lengua moderna y adaptada a la sociedad actual.

El euskera está experimentando un acusado crecimiento gracias a la voluntad y al esfuerzo del conjunto de la sociedad. Gracias al hecho de que toda la sociedad ha asumido el euskera como proyecto colectivo. Gracias al compromiso público y privado. Gracias al acuerdo social. Hemos hecho de la convivencia lingüística un componente de la convivencia social, un elemento esencial de la cohesión social. Hemos situado la igualdad lingüística y la opción lingüística del individuo en la base de la igualdad de oportunidades entre todos los ciudadanos y ciudadanas.

El Día Internacional del Euskera es, asimismo, un día para tomar impulso. En efecto, hoy nos hallamos todavía lejos de la igualdad social entre las dos lenguas oficiales. El euskera y el castellano gozan, en lo relativo al uso, de idéntico reconocimiento legal, pero viven diferentes situaciones sociales.

Por ello, queremos seguir avanzando. En la Comunidad Autónoma Vasca contamos con dos lenguas oficiales. Pero sigue constituyendo un objetivo, en el conjunto de la sociedad, alcanzar la igualdad social entre las lenguas. Porque estamos orgullosos de la diversidad lingüística, así como de la aportación que a través del euskera hacemos a la diversidad lingüística en el mundo. Porque la diversidad lingüística enriquece nuestra sociedad, porque el euskera enriquece la diversidad lingüística y, en consecuencia, nos enriquece a cada uno de nosotros y nosotras. Queremos, como dijo Etxepare, que el euskera salga a la plaza, queremos que el euskera viva fuerte y sano en todos sus territorios.

Que el euskera sea una lengua usada y viva: he ahí nuestro objetivo. Un objetivo que requiere la voluntad y esfuerzo de todos y todas; un objetivo ilusionante; un objetivo que nos interpela a todos y todas: individuos y colectivos, poderes públicos, partidos políticos, sindicatos, asociaciones de empresarios y empresarias, asociaciones deportivas, de ocio o culturales, organizaciones de los diversos ámbitos de la sociedad, etcétera. Es un objetivo que nos agrada, un compromiso que asumimos con gusto.

Por ello, los poderes públicos y los más diversos agentes sociales nos hemos propuesto celebrar unidos el Día del Euskera del presente año. Hemos querido asumir el compromiso de fortalecer el euskera y la convivencia lingüística, un compromiso acorde con la dimensión y posibilidades de cada cual. Para ello, nos hemos hecho una pregunta: "¿Qué puedo hacer yo por el euskera?".

Los y las firmantes de la presente declaración queremos dar una respuesta propia a esa pregunta, una respuesta que, en una u otra

medida, fortalezca el euskera en nuestros ámbitos respectivos. Igualmente, queremos invitar a toda la ciudadanía y a la totalidad de los agentes sociales a hacerse esa misma pregunta y a que cada cual medite su respuesta, porque las aportaciones de todos y todas son útiles y beneficiosas para la revitalización del euskera y para reforzar nuestra convivencia. Celebremos con alegría y orgullo, por tanto, el Día Internacional del Euskera. Y vivamos en adelante el euskera haciendo de él una lengua viva, entre nosotros y nosotras y en nuestra cotidianidad, respondiendo a la pregunta “¿Qué puedo hacer yo por el euskera?” y difundiendo esa misma pregunta a lo largo y ancho de nuestra sociedad.

Zer egin dezaket nik euskararen alde? Euskararen Nazioarteko Eguna, 2016

Adierazpena

Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko

eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker. Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukera berdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristek. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntza-aniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?".

Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzeko eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko. Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz.

5.2. Azaroaren 25eko erakunde-adierazpena: Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna.

Eslava Guillerna andreak jakinarazi du azaroaren 25ean Euskaldunberria kioskoan ekitaldi bat egon zela eta Arabako Errioxako Kuadrillako berdintasuneko zerbitzuak egindako adierazpena irakurri zela bertan. Testua ez da bilkuran irakurri, baina aktan erantsi da:

2016ko Azaroak 25eko manifestua (Arabako Errioxa)

Banan-banan biolentzia matxista ehunka emakume erailtzen ari da mundu mailan. Tantaka, etengabe, hiltzen goaz. Emakumeentzako egungo munduan larrialdi egoeran bizi gara, eta tamalez, normalizatu egin dugu. Baina hau ez da normala. Datuek argi erakusten dute: Euskal Herrian 2016an indarkeria matxistak 6 emakume erail ditu. 86 emakume Espainiar Estatuan. Eta Europar Batasunean 3 emakumetik batek biolentzia fisikoa edo sexuala jasan izan du bere bizitzan.

Gaur, azaroak 25, emakumeen kontrako biolentzia molde guztiak salatzeke eguna da. Genero-indarkeria kasu larrienak eta feminizidioak icebergaren tontorra dira. Hori gertatzeko beste diskriminazio eta zapalkuntza-makineria oso bat behar da oinarrian. Emakumeak etengabe gutxien dituen, prestigiorik gabeko lan eta funtzio sozialetara mugatzen dituen, edertasun kanon ideial ezinezkoak inposatzen dizkiena eta emakume izateko era zurruna dakarrena: besteentzako bizi den emakumearena, finean. Publizitatearen, telebistaren, zinemaren, jostailuen eta bestelako mezuen bitartez, mikromatxismo hauek barneratzen ditugu. Gizonak, aldiz, gehiengoa dira botere-guneetan eta bertan hartzen diren erabaki politikoek herritar guztioi eragiten digute, eta bertan kontuan hartu beharko litzateke emakumeek bizi dugun desberdinkeria egoera.

Indarkeria matxista, gainera, beste diskriminazio sozial mota askorekin gurutzatzen da; jatorri etnikoa, arrazoi ekonomikoak, orientazio sexuala, aniztasun funtzionala, genero-identitatea... Hauek heriotza, sufrimendua eta injustizia egoerak ekar ditzakete. Eta horren aurrean ezin dugu ezikusiarena egin edota neutralak izateko saiakerarik egin, injustizien aurrean neutralitatea zapaltzailearen alde jartzea baita.

Feminizidio guztiak ez dira kolpe bat-batean gertatzen. Hauetako asko astiro eta isilago eragiten dira: emakumeak gogorrago kolpatzen dituen pobrezia bitartez, ezartzen diguten geure bizitzaren gaineko erabateko kontrolaren bitartez, presioak eta antsietate arazoak jota, gizarte bazterkeriaren bitartez eta indarkeria sinbolikoaren bitartez eragiten diren gaitz psikologikoak, besteak beste.

Egoera aldatzeko ezinbestekoa da hezkidetzaren bitartez belaunaldi berriengan eragitea, beraiek baitira etorkizuna. Baina ezin dugu ahaztu inguruko helduak umeentzako eredu erreferentzialak direla eta geure ardura dela inoren askatasuna urratuko ez duten baloreak transmititzea haiei.

Horregatik, ez dezagun soilik gaur bezalako egun batean protesta egin, ekin diezaiegun eguneroko iraultza txikiei, etxean, familian, lagunartean eta lanean, horrek eragingo baitu mundua aldatzeko mugimendu erraldoia.

Kalera irteteko eta etxera sartzeko beldurrik gabe bizi nahi dugu! Emakumeenganako Indarkeriari Ez! Aski da.

Manifiesto del 25 de noviembre (Rioja Alavesa)

La violencia machista asesina a miles de mujeres en el mundo. Como en un goteo constante, nos vamos muriendo. Hoy en día las mujeres vivimos en una situación de emergencia, y desgraciadamente, lo hemos normalizado. Pero esto no es normal. Los datos hablan por sí solos: en 2016 la violencia machista asesinó a 6 mujeres en Euskal Herria. En el estado español fueron 86. Y una de cada tres mujeres en la Unión Europea ha sufrido violencia física o sexual.

Hoy, día 25 de noviembre, es uno de los días para denunciar todo tipo de violencias contra las mujeres. Los casos más graves de violencia de

género y los asesinatos sólo son la punta del iceberg. Para que esto ocurra hace falta toda una maquinaria de discriminación y represión de base, la cual menosprecia continuamente a las mujeres, que las limita a trabajos y funciones sin prestigio social, que les impone unos cánones de belleza ideales e inalcanzables, y que suponga una manera rígida e inflexible de ser mujer: al fin y al cabo una mujer que vive para los demás. Mediante la publicidad, la televisión, el cine, los juguetes y otros mensajes, vamos interiorizando estos micromachismos. Los hombres, en cambio, ocupan la mayoría de posiciones de poder, y las decisiones que toman afectan a toda la ciudadanía, estas decisiones deberían tener en cuenta las posiciones de desigualdad.

La discriminación de género, además, se cruza con otras muchas discriminaciones sociales; origen étnico, razones económicas, orientación sexual, diversidad funcional, identidad de género... Todas éstas pueden producir sufrimiento, injusticia o incluso la muerte. Y ante esto no podemos mirar a otro lado o intentar ser neutrales, ya que en situaciones de injusticia la neutralidad significa ponerse del lado del opresor.

No todos los feminicidios suceden de repente. Muchos de ellos suceden más lento, más silenciosos: mediante la pobreza que golpea más duramente a las mujeres, sobre el control total de nuestras vidas, golpeadas por presiones y ansiedad, mediante exclusión social o enfermedades psicológicas producidas por violencia simbólica.

Para cambiar esta situación es indispensable producir cambios en las nuevas generaciones ya que ellas y ellos son el futuro. Pero no podemos olvidar que la gente adulta de alrededor son modelos

referenciales para las criaturas y que es nuestra responsabilidad transmitir valores a las nuevas generaciones que sean respetuosas con la libertad de las personas.

Por todo ello no protestemos solamente días como hoy, empecemos con las pequeñas revoluciones cotidianas, hagámoslo en casa, en familia, entre amigos y amigas, en el trabajo, ya que esto generará un movimiento enorme para cambiar el mundo.

¡Queremos vivir sin miedo a salir a la calle y a entrar en casa! ¡No a la violencia contra las mujeres! ¡Ya basta!

5.3. Gizarte Zerbitzuen Planari buruzko erabakia.

Alkate jaunak Gizarte Zerbitzuetako diputatuarekin abenduaren 15ean izandako bileraren berri eman du. Bertan, Arabako gizarte zerbitzuen maparen berri eman zen, 2008ko Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak garatutakoa. Lege horren arabera, Udalen ardura da oinarrizko gizarte zerbitzuak mantentzea. Hala, Bizkaian eta Gipuzkoan udalek beraien gain hartzen dute kostu osoa. Araban, udalerrri gehienek tamaina aintzat hartu behar da, eta, hori dela eta, Aldundiarekin aldi baterako hitzarmen bat sinatu zen. Hitzarmenaren iragankortasuna amaitu egiten da, eta proposamen berri bat aurkeztu behar da. Aldundia gaia aztertzen ari da, baina orain arte ez dugu proposamenik jaso. Hori dela eta, gaia ez da bozkatu.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

6.1. 2017ko abenduaren 31n iraungitzen den bankuko kontu korrontearen kontratua.

Aurrekariak

- 1) Administrazio honek Kutxabank, SA bankuarekin du hitzartuta kontu korronte bat, eta eskaintza hau aurkezten du, baldintza hauekin. Onetsi egin dira: Zenbatekoa: 500.000 euro; ezeztatzeko gehieneko epea: 2016ko abenduaren 31; urteko nominaren interes mota: % 0,78: seihileko berrikuspena; irekiera komisioa: ez; jarri gabeko kapitalaren gain % 0,10eko komisioa (urteko sortzapena); atzerapen interesa: % 25.
- 2) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 4. artikuluko 1. ataleko l) hizkian xedatutakoa aplikatzen da. Horren bidez, adierazten da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen esparrutik kanpo geratzen direla honako hauek, beste batzuen artean: Balio edo bestelako finantza-tresnak igorri, erosi, saldu eta transferitzeari buruzko finantza-zerbitzuei dagozkien negozio eta harreman juridikoak; bereziki, Estatuko finantza-kudeaketari buruzko eragiketak. Baita sektore publikoko erakunde eta organismoek funtsa edo kapitala lortzeko eragiketak, Espainiako Bankuak emandako zerbitzuak, eta diruzaintzako eragiketak ere.
- 3) Aplikagarria da otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko (Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa) 56.1 artikulua. Artikulu horrek xedatzen du Toki Erakundeek urtebetetik beherako epeko diruzaintzako eragiketak hitzartu ahal izango dituztela era guztietako finantza erakundeekin euren ordainketa eta sarreren mugaegunen diferentzietatik sortzen diren aldi baterako likidezia mentsak estaltzeko, Toki Ogasunei buruzko

ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauko 51. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

- 4) Aplikagarria da Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 51. artikulua. Horren bidez honako hau zehazten da: arau honetan aurreikusitako baldintzen arabera, eta dagokien Erakundeek, Arabako Lurralde Historikoko udalerriek eta horien organismo autonomoek zehaztutako xedapenen esparruan, Udalbatza Osoak erabaki ondoren, honako hauek hitzartu ahalko dituzte: b) Urtebetetik beherako epeko diruzaintzako eragiketak era guztietako finantza-erakundeekin, diruzaintzako aldi baterako beharrak estaltzeko.
- 5) Aplikagarria da Toki Ogasunak arautzen Dituen Legearen Testu Bateginaren 51. artikuluan xedatutakoa, epe laburreko kreditu eragiketei buruzkoa: Toki erakundeek kreditu eragiketak egin ahal izango dituzte epe laburrera, hau da, urtebetetik beherako epera, diruzaintzaren beharrizan iragankorrei aurre egiteko. Horretarako ezinbestekoa izango da eragiketa guztien zenbatekoa ez izatea aurreko ekitaldian eragiketa arruntengatik likidatutako sarreraren ehuneko 30 baino gehiago; salbuespena: eragiketa aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatu baino lehen egin behar bada, ekitaldi horren aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa hartuko da aintzat. Hori dela eta, epe laburrerako kreditu eragiketatzat hartuko dira, besteak beste: b) Finantza erakundeek diruzaintzako desoreka iragankorrak estaltzeko ematen dituzten maileguak eta kredituak.
- 6) Finantza erakundearekin urteko kontu korrontea sinatzeko espedientea abiaraztea, diruzaintzako hitzartutako operazioa,

kobro eta ordainketen arteko aldi baterako tarteei aurre egiteko. Abiaraztean, Oyón-Oionen bulegoak dituzten banku-erakunde guztiak gonbidatuko dira. Eskaintzan azaldu beharko da jarritako kapitalaren gain ezarriko den interes mota, eta kasu horretan aplikatuko diren bankuko komisioak. Eragiketa hori 2017ko abenduaren 31n ezeztatuko da.

- 7) Eskaintzarik onuragarriena Banco de Santander erakundearena izan da. Baldintza hauek proposatu ditu; zenbatekoa: 500.000 euro; ezeztatzeko gehieneko epea: 2017ko abenduaren 31; jarri ez den kapitalaren urteko interes mota: % 0,29: berrikuspenik gabe; irekiera komisioa: ez; jarri gabeko kapitalaren gain % 0,10eko komisioa (urteko sortzapena). Formalizazioa: udaleko fede-emaile publikoaren aurrean.
- 8) 2016ko abenduaren 20ko bilkuran kontratazio-mahaiak egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Esleitzea urteko bankuko kreditu kontuaren kontratua Banco de Santander erakundeari. Baldintza hauek proposatu ditu; zenbatekoa: 500.000 euro; ezeztatzeko gehieneko epea: 2017ko abenduaren 31; jarri ez den kapitalaren urteko interes mota: % 0,29: berrikuspenik gabe; irekiera komisioa: ez; jarri gabeko kapitalaren gain % 0,10eko komisioa (urteko sortzapena). udaleko fede-emaile publikoaren aurrean, Udaleko idazkaria.
- 2) Eduardo Terroba Cabezón alkateari ahalmena ematea beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.
- 3) Erabaki hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiko Herri Administrazioen eta Lurralde Oreka Sailari.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 1 (bat); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion).

6.2. 2017ko laguntzen programan obrak sartzeko eskaera, obra txikiak exekutatzeko.

Aurrekariak:

1. Lurralde Historiko honetako Toki Erakundeei laguntzak emateko deialdia, 2017ko programarako, obra txikiak exekutatzeko.
2. Laguntza eskatzen den jarduera horretarako ez da proiektu teknikorik behar. Horri buruzko ziurtagiria erantsi da, toki erakunde honetako hirigintza arloko teknikari aholkulariak igorritakoa.
3. Eskaera aurkezteko epea amaitutakoan, toki erakundea da jardungo den ondasun horien titularra, deialdia onetsi zuen erabakiaren bitartez onetsitako araudiaren 4. puntuan zehaztutako baldintzen arabera; ondasun horiek ez dira laga edo alokatu.
4. Obra hori ez da eskaeraren helburua Ekonomia Sustapena eta Lurralde Oreka Saileko laguntzen beste programa batean, 2017ko deialdietan.

5. "Oyón-Oiongo San Martin eta La Giralda kalea konpondu eta hobetzeko" obren memoria, Luis Hernández Mayoral arkitektoak idatzitakoa. Aurrekontu orokorra 34.992,74 eurokoa da.

Hau erabaki da:

1. Onestea "Oyón-Oiongo San Martin eta La Giralda kalea konpondu eta hobetzeko" obren memoria, Luis Hernández Mayoral arkitektoak idatzitakoa. Aurrekontu orokorra 34.992,74 eurokoa da.
2. Arabako Foru Aldundiko Herri Administrazioen Sailari diru-laguntza eskatzea "Oyón-Oiongo San Martin eta La Giralda kalea konpondu eta hobetzeko" obrak exekutatzeko, Luis Hernández Mayoral arkitektoak idatzitakoa. Aurrekontu orokorra 34.992,74 eurokoa da.
3. Eskaera hori eginda, Lurralde Historiko honetako Toki Erakundeei laguntzak emateko deialdiak (2017ko programarako, obra txikiak exekutatzeko) zehazten dituen konpromisoak onartzen dira. Hauek dira:
 - a. Administrazio honen ardura izango da Araudian aurreikusitako baldintza guztiak betetzea, eta diruz lagundutako jarduera horri aplikatu ahal zaion araudi osoa.
 - b. Administrazio honek bere gain hartzen du obrak hasi aurretik lizentzia eta baimen guztiak lortzeko ardura, baita aldeko txostenak ere, diru-laguntza lortu ondoren obrak exekutatu ahal izateko.
 - c. Administrazio honek obraren exekuzioa zuzenean eta bere kabuz kontratatzeko konpromisoa hartzen du.

d. Administrazio honek 2017ko azaroaren 30ean obra amaituta egoteko konpromisoa hartzen du, baita kostu osoa finantzatzekoa ere. Horretarako, diruz lagundu gabeko kostu horiei aurre egiteko baliabideak ditu. Era berean, elementu edo azpiegiturak hamabost urtez mantendu beharko ditu, baita diruz lagundutako instalazio edo ekipamendu horren helburua edo xedea ere.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 1 (bat); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion).

Eguneko aztergaien zerrendako gai guztiak landu ondoren, eta eskaerak eta galderak atalera igaro aurretik, alkate jaunak premiaz honako puntu hauek sartzeko eskatu du:

Dolores Ruiz Zuazo zinegotziaren uko egitea.

Gaia premiaz sartzea bozkatu da.

Dolores Ruiz Zuazo zinegotziaren uko egitea.

Aldeko botoak: Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Gaia premiaz sartu da aztergaien zerrendan, eta jarraian eztabaidaren eta bozketaren berri eman da.

6. Dolores Ruiz Zuazo zinegotziaren uko egitea.

Aurrekariak:

- 1) Dolores Ruiz Zuazok 2016ko abenduaren 20an idazki bat aurkeztu zuen; horren bidez, bere zinegotzi karguari uko egiten zion.

Hau erabaki da:

- 1) Dolores Ruiz Zuazo zinegotziak uko egin duela jakinaraztea, kargua hutsik dagoela adieraztea eta Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatzea ordezteko prozesua abiarazi dezan, hautagaiari egiaztagutuna emateko eta kargua bete ahal izateko.

Hautatutako pertsonak 2015eko apirilaren 28ko 51 zenbakiko ALHAOn argitaratutako hautagaitzari kasu egingo beharko dio.

Aldeko botoak: 5 (bost); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Luis Felipe Campos Latre (PP).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstenitu diren zinegotziek ez dute ulertzen gaia bozkatzeko beharra.

Azken puntua) Galderak eta eskaerak

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 21 - XII – 2016;

Gamarra jauna: Urtearen amaiera honetan zuen jarera eskertu nahi dizuet, eta irautea espero dut.

Villanueva Gutiérrez jauna: Zinegotziak Erregistro Zibila eramateko duen bateraezintasunari buruzko galdera bat daukat. Aurreko legegintzaldi osoan berak eraman zuen, baina uko egin ondoren ez dago bateraezintasunik.

Alkate jauna: Gobernu taldeak nahi du erregistro zibil hori udaletxeak ematea, Nagusia plaza 5 helbidetik. Erregistro zibila lekuz aldatzeko eskaera bitan egin diogu epaile dekanuari.

Campos Latre jauna: Eguberri on, guztioi.

Alkate jauna: bilkuretan harmonian eta giro onean parte hartzen duten zinegotzi guztiak zoriondu nahi ditut; baina, bestetik, ez dut ulertzen pertsona batzuk aldiro-aldiro ez etortzea.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:52an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko abenduaren 30ean.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE: